



ETIOPIA

BERNARDO ATXAGA

erein

ETIOPIA

Poesia, 50

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

3. argitalpena Erein argitaletxean: 2024ko urrian

Maketazioa:
Erein

Ilustrazioak:
Jon Aranguren

© Bernardo Atxaga

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-920-8


L. G.: D 895-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    


Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Alizutate kalea, 51

Zubillaga auzoa, 9 - 20560 Oñati

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Bernardo Atxaga

ETIOPIA

Ilustrazioak
Jon Aranguren



ETIOPIAKO POETA

IÑAKI ALDEKOA

Surrealistentik zer gelditu zaion galdetuta, hauxe Raymond Queneau-ren erantzuna: «Gazte denbora bat bizi izanaren irudipena».

Bernardo Atxagaren *Etiopiak* (1978) abangoardiaren espiritu errebelde eta subertsiboa ekarri zuen euskal poesiara. Izan ere, artean inork erakutsi ez zuen erabakitasun eta kemenez jarri zituen hankaz gora poesiaren eta bizitzaren arteko harreman konbentzionalak. Poesia ez zen ezer bizitza irauli ezean. Rimbaudek bizkarra eman zion literaturari; eta *Etiopiako* poeta ere ez dago hutsalkeria estetizistarekin konformatzeko. Abentura berri bat zuen helburu, giza balioak oro hankaz gora jartzearen abentura, hots, botereari eta haren euskarri den ziutateko lengoaiari mingaina ateratzea.

Gizarte burgesaren muinean agintzen duen kalkulu eta arrazoimen instrumentalari, eta funtsean haren sostengu moralala zen familiaren balioei egiten zaie eraso *Etiopia* honetan, eta umorea (ironia) eta disparteak dira poetaren baliabideak zurruntasunaren hormak eraisteko orduan. Abangoardia ez da inoiz agertu ulerbera ohiko familia burges arruntaren balio

moralekin, familia horietan gertatzen diren drama pertsonal edo drama sasierromantikoekin: «ni puta bat naiz oihukatu zuen ezkontza despedidan» edo «Farmaziako jabeak alaba gazteena ezkondu zuen diabetiko baten semearekin...».

Modernitatearen arrazoimen burgesari aurre eginez, bihotzaren arrazoiren aldeko hautua egin zuen erromantizismoak: maitasuna, intimismoa, afektua. Eta lehen erromantiko haien tentzat bezala, surrealistentzat eta hauen aitzindaria izan zen Gerard de Nervalentzat ere (liburuan beti presente), erlijio berri baten itxaropen bihurtu ziren balio horiek. Hala ere, balio horiek itxurarik gabe degradatuak zeuden ziutate burges bihozgabeetan. Eta arrazoimenaren logika murriztaile eta desitxuratzailaren aurrean, abangoardiek umeen irudimen mundu askea, zibilizazioaren tenazen artean estutu gabea, eta jolasa inbokatu zituzten. Ez zuen besterik egin Atxagak «Ainhoa» poeman, inozentziaren erakarmen poetikoa hain xaloki iradokiz.

Familia barruko liskar bibliko batekin hasten da *Etiopia*: Jainkoak desparadisura kondenatzen du Kain, Abel anaia hiltzeagatik. Boterearen krudeltasun apetatsuenaren lehen agerraldia da Kainena. Lehen apatridaren kontakizunak (prosan idatziak) egiten du atarikoa liburuan; Piolet poeta lirikoaren kontakizunak (hau ere prosan idatziak), berriz, Etiopiarako norabidean jartzen gaitu, non *kitsch* bihurtu zaigun jenialtasunaren estetizismoa, erromantizismoaren garaietatik tronura goa zegoena. Edertasunaren aldarea ederretsi duen poesiarik –Kutxillet-i eta Pospollet-i– ukorik egin ezinean dabil Piolet modernoa.

Aurrerantzean Etiopia inguratzen duten hareazko bederatzizko zirkuluen inguruan egindako bidaian ez da desolaziorik

faltako: lehen zirkulutik bertatik «Kabila poema»ko negarra-
rekin abiatu eta, zinemako amonarenganaino, zeina Galapa-
go irlei eskainitako dokumentalari begira, proba atomikoaren
ondorioengatik malkotan dagoen. Caryl Chessmanen gasea-
tzeak (Sacco eta Vanzettirenak gogoan) krudeltasun parega-
bearen hilabete bihurtzen du maiatza ere (ez bakarrik apirila,
Eliotek *Lur antzuan* iragarri zuen bezala). Eta Kattyren he-
riotza (prosan idatziak hauek denak). Eta zenbat suizida, eza-
gun eta ezezagun, batzuek poeten panteoian kontsakratuak
(Nerval, Rigaud; Cravan, Francis Picabiaren mozorroan) edo
George Tralk-en oihartzunak arrebaren itzalaren peskizan; Li-
zardi eta Lauaxeta (petits poètes) eta Mirande eta Etxahun
(suizida bata, hiltzailea bestea; malditoak biak). Eta Etiopia-
ren bihotzean: Rimbaud.

«Hautsi da anphora»,¹ desegin dira betirako ziurtasun
borobilak (erlijioa eta ordezeko fede guztiak: arrazoimenaren
panazeak, progresoarenak, artearenak eta kolore guztietako
Utopiak, iraultzaileak eta nazionalistak), eta geratu dena ha-
ren ispilu deformatua da, mila zatitan apurtua. Izan ere, aban-
guardia historiko haien revival dadaista halako bat gertatzen
da 60-70eko kontrakulturaren, eta Gerrate Handiak hitzen
eta irudien bizitza betiko aldatu zituen modu berean bihu-
rrituko da *Etiopian* garaiko hitz eta balio zurrunen muina.
Hautsi dira kultura-erreferentzia hierarkiko eta dogmatikoak

¹ *Hautsi da anphora* (1980) da Ruper Ordorikaren lehen diskoaren izenburua,
eta *Etiopia* liburuko poema asko musikatu zituen bertan. Atxagaren poesiaren
«Erresonantzia kaxa» potentea bihurtu zen diskoa. Ruper Ordorika ere Pott bandako
partaide izan zen, Bernardo Atxaga, Manu Erzilla, Jon Juaristi, Joseba Sarrionandia
eta Joxemari Iturralderekin batera. *Etiopia* liburua Pott bandaren argitalpen sailean
argitaratu zen estraina.

ere. *Etiopia* honetako ezpalak dira: printza mitologikoak (irulea, Pandora, Isis, Polux eta Ikaro) eta zinema munduaren topikoak Bogarten ahotan jarriak; Rainer Maria (Rilke) eta marketing modernoa, komikiaren mundua eta pop musika, I Ching liburu orakular txinatarra eta Bony and Clyden edo King Kong, tebeoak, eta abar.

Hondamendiaren kronika konplitua eskaintzen digute zenbait poemek: «Eguneroko bizitza», «Negukoa», «Harearena», «Herdoilarena» edo «Fas fatum». 70eko hamarkadaren kronika honetan ez da falta gerrarik (Vietnam) ez borrero profesionalik (diktadura). Baina eduki elegiako eta apokaliptikoaren alboan, umore jostalari eta aldarte umoretsuek hartzen dute gaina. Ziutatearen beste izena labirintoa da, eta aspaldi dela egin zuen ihes handik benetako azken poetak; eta bakarren bat geratzen bada ere, izango da esploradore, boxeolari edo beste ironiaren baten izenean. Umorea, ironia eta jolasa batera ari dira lanean, nahiz eta umore hori ezinegonaren adierazgarri larriena izan maiz. Hitzen agortzearen eta dena esanda egotearen sentimendua ari dira salatzen liburu osoan barrena barreatutako leherkariak: *bla, bla, bla; très normal, très normal; O-nou, O-nou; etcetera, etcetera...*, edozein iritziri berez legokioketena ukatuz; collagea eta gag.

Ahalegin formalen garaiak igarota dirudien arren, eta poesiari darion zahar kutsu orotatik ihes egin nahiko lukeen *Etiopia* honetan bada, ordea, poesia eta antipoesiaren arteko tentsiorik; erritmoaren zentzuz eta hitzaren xarmaz landutako

esaldien alboan, hitzaren lilura eta prestigio oroz erantzitako esaldirik. Formaren aldetik taxuketa ezin hobea erakusten duten poemen alboan, esaldi solteak eta sintaxi ausartak aurkituko ditugu, dadaismoaren espirituari jarraikiz «hitz askeak», besteak beste bilduma osoan barreiatutako *agian* edo lehenago aipatutako *bla, bla, bla*, poemaren barnetik globoak bailiran, seriotasunik apurrena ere leherraraziz.

Eta telebistak eta zinemak hain ohituta gauzkan «The end» horren ondoren, gainerik kendu nahi izan ditu poeta afizionatu eta jasanezinaren aitormen zentzugabeak ere, aspertuta baitago, finean, berritsu baten kausaz, uneoro, nola halako *déjà vu* sentsazioa izaten. Alfred Jarry baten umore jostalaria eta absurduaren antzerkiaren kutsu probokatzaileria bateratuz, happening bat balitz bezala, justu hutsalkeria horretaz erantzi nahi izan zuen *Etiopiako* poetak, liburuaren agurrean eta amaierako poeta hilaraziaren gorpuan proiektatu bide zuen mezu prosan idatzi hau ere.

Hori guztia berria gertatu zen euskal poesiagintzan, Espainiako poesian *Novissimoen* eraginez gertatu zen modu berean. Batean zein bestean, atergabea da 50eko urteetatik aurrera Europa inbaditu zuen *mass-mediën* kultura amerikarraren eragina. Kultura erreferentzia berriak ziren horiek guztiak. Mentalitate zahar, kontserbatzaile eta (frankismopean) klaustrofobikoari mingaina atera eta aire freskagarria biriketartzeko modu bat izan zen. Eta zurrundutako kultura ilun, serio eta tristearen aurrean arintasun eta askatasun dosi handi bat ekarri zuen.

XXI. mende-ataritik begiratuta, badakigu justu hamarraldi horiexek (60-70eko hamarraldiek) ezagutu zutela

abangoardien erabateko garaipen kulturala eta soziala. Baina laster asko sistemak —interes politiko eta ekonomikoak— bere egin zuen abangoardien ondarea eta erakundeetatik bertatik desaktibatu eta irentsi zuten. Guy Debord situazionistak jada 60ko urteen amaieran adierazi zuen bezala, espetakuluaren gizartean bizi ginen. Gaur egunetik begiratuta, haren hitzek zentzu beteagoa hartzen dute.

70eko urteetan ironiatzat hartzen zena gaur egun kontsumo-arauen barruan dago. Modernitatea ulertzeko modu bat amaitu da, eta hango sentsibilitatearen lorpen arriskugarri eta eragingarrienak, utopikoenak, hitz batean esateko, adierazpen publizitario bateko apaingarri eta lurrina dira. Esan dezakegu inoiz arteak izan duen arrakastarik distirante eta eragingarrienean hustu dela haren sustantzia, aurrerantzean «prozedura», «erabilera», «montajea», «performance», «*ready-made*» eta piroteknia handiz egindako aktibismo efimero baina masiboetara errenditzeko.

Bernardo Atxaga inor baino lehen ohartu zen artearen eta kulturaren munduan gertatzen ari zen aldaketaz. Pott-eko abenturarekin batera abangoardiarena ere amaitu zen Atxagarentzat. Agian, «37 galdera mugaz bestalde dudan kontaktu bakarrari» izan zen haren azken(etako) poema abangoardista (1982). Gero idatzi zuen poesia ez da *Etiopiakoa*; eta idazten hasten den narratiba ez da *Ziutateaz* nobelakoa (1976). Egi-learn hurrengo lanetan, tradizio modernoaren ukazioa keinu eta ironiaren mugaz harago doa; izan ere, bata nahiz bestea, ez baitira eraso egiten duten tradizio beraren kume baizik. Eta zahar beharrez berria gertatzen den marjinaltasun horretatik hasten da poeta begiratuaren lengoia berri bat eskaintzen,

hortxe, juxtu, ikasiko du berriro hitz egiten. Hantxe ahaleginduko da poeta, gainera, mundua (berea eta «Trikuarena», 1988) biltzen duen hogeita zazpi hitzen alfabetoa berregokitzen. Izan ere, poema horietan zerbait benetan esanguratsua egotekotan, gizakiak bizi duen argi-itzalezko egoeraz haratago, Ainhoa eta Xola bezalako lekuko tolesgabe bakartiak dira, inozentziaren lengoia baino ezagutzen ez dutenak. Eta erreferentzia urbanoak ere ezinbestera murriztuz, poetak George Tralk-en *Helianekin* dihardu «Bihotz, antzinako bihotz» (1989) poeman: bihotz txiki eta hauskor baten eguneroko heriotza isilaz. *Poemas e hibridos* (1990) liburuan daude bilduta poema horiek.

Baina horiek guztiak *Etiopian* ere badaude, ernamuine-tan bada ere, noiz haragitu zain: «Ainhoa» eta «Obabatxue» (artean Atxagaren sorkuntza munduan Obabarik ez zegoe-nean) edo George Tralk-en oihartzun artean mamitu gabea. Etiopiako abangoardia (dadaista-espresionista) harenganako gure harreman (itxaropentsua) aldatu da, eta nostalgia handiz begirutzen diogu *Etiopia* liburuan poetak bildutako adore eta aldarte bikain hari. Harrezkero jakin badakigu, «Bizitzak» (1985) poema ederrari jarraituz, egunero argitzen duela eta, daukagun denboratxoan, egunero hasteko aukera dugula; pott eginez apika, baina, Beckett-ek esan zigun bezala, dui-nago pott eginez.

2024ko udaberria



Bernardo Atxaga

ETIOPIA



KAIN, ABEL

Duvoisin kapitainaren itzulpenean ere hala irakurtzen da, zeru boteretsuak ez ziela begiratu Kaini eta haren emaitzei; baina ez da argi ikusten desprezio horren zergatia, ez eta Abeli ondo begiratzearena ere. Esaten da, bai, azken honek artaldeko lehen sortuetarik eta gizenenatarik eskaini zizkiola dohain gisa, eta ez da aipatzen horrelako xehetasun mesedegarririk Kainen fruituez. Baina, halere, eta bi anaiak paradisuari bizi zirenez gero, bidezkoa da sumatzea lurreko fruituak ere onak zirela. Jaunaren joerak kapritxo huts bat dirudi.

Baina ez, Duvoisinin lan horretan barrena jarraitzen dugunean, beste arrazoi batzuk ere agertzen zaizkigu testuan: «Eta Kain borthizki sumindu zen, eta erori zen haren begithartea. Eta Jaunak erran zioen: Zertako samurtu zare?, eta zertako erori da zure begithartea?»... Jaunaren baitan galdera horiek ez ziren jolasa baino. Kainek konprenitu zuen. Nabarmen azaldu zitzaion boterearen krudeltasun geldoa, zeina gatuarena zirudien eta matoi kutsu hori, mixerablekeria.

Horregatik ez dira jasotzen haren erantzunak, ez zirelako behar, soberan zeudelako.

Guztia alde z aurretik dakienari isiltasuna dagokio, ez itauna. Baina Jaunak jarraitu egin zuen: «Baldin ongi egiten baduzu, ez othe zare sarizatua izanen?, eta gaizki egiten baduzu, zure bekhatua ez othe da berehala zure atherako?»...

Argi dago: aitak bere kondizioeak ipintzen zizkion, paradisuaren prezioa obedientzian zetzala, gatibutasunean. Duvoisinek ezin zuen aipatu baina suma daitezke Abelen begiak, ezpainak, bekokia ere baietz esanez, mutu onartuz, morrontzaren abantailak kalkulatzeko, Abel Abel, eguneroko gizona, aitaren zutaberik sendoena, Abel. Horrela, eta ez beste inola esplikatu daiteke Kainen jokaera hitzez hitz irakurtzen ari garena: «Eta Kainek erran zioen Abel bere anaiari: Ilkhi gaitezen kanpora. Eta kanporatu zirenean, Kain jauzi zitzaioen Abel bere anaiari, eta hil izan zuen».

Erabaki eta ekintzaren dramatikotasunak oraindik ere hunkitzen gaitu. Hilketarekin, kastigura ez ezik, bakardade latz batera ere kondenatu egiten zen, ez baitzegoen paradisuaren bere kideko besterik.

Gero datorrena hain zuzen dator, ildo beretik doa: Jaunaren erresumina eta betiko galdera hotzak. Hotzak, baina hitz erdikoak ere bai. Eta kastigu ikaragarria, Kain heriotzara baino bizitzara kondenatzen zuelarik. Ez da aipatzen malkorik, ez da aipatzen gupidarik, aitak aski zuen (hastapenetan bertan ere) zigorrarekin.

Duvoisinek honela itzultzen du agindua: «Lurraren gainean ihes eta lekhu-lekhu ibiliko zare...». Kapritxo ahalguztidunaren ondorio gisa, baina kapritxo berberaren pesadillarako era berean, Kain apatrida bat zen jadanik, eta bizi guztirako.

Itzulpenean irakurtezina bada ere, badakigu Etiopiako basamortuan egon ziren profetek anaia librearen hurrengo egunen berri izan zutela: Kainek bost egun eta bost gau bete zituela negarrez anaiaren faltagatik.

Bakarrik sentituz, areago tristatzen zen. Konprenitu egiten zuen errebelamenduaren justizia, eta puntu berean sentitzen zuen erantsia zeraman sufrimendua. Jakin zuen, baita ere, nola bera, bera bakarrik, zen Abelen heriotza sentitzen zuena, eta nola aitari aski zitzaion haren boterearen erabilera zurituko zuen aitzakiarekin. Alabaina, harena beste historia bat zen. Bi Abelekin, ondorengoak obedientziara kondenaturik zeuden, geunden. Baina ordudanik hainbat izaki paradoxan biziko zen –bere eskuz hildako gorputzaren gainean malkoak isuriz–, eta aitaren mapa eta plangintzetan etorkizuna ez zen inoiz segurantzazko lurralde bihurtuko. Duvoisinek Vulgata osoa itzuli zuen, baina gu hasierako hauetan geratzen gara.

Kainen jatorrikoa izan zen Jubal: hau izan zen arrabita eta maniura jotzen dutenen aita. Gu ere haren hegalpean babesten gara letra hauek izkiriaterakoan. Eta haxe da, hain zuzen ere, gure fede artikulua bakarria udaberri berankor honetan.